



# ITZALETIK, AITORPENAREN ARGITARA



# ITZALETIK, AITORPENAREN ARGITARA

Aitorpenik izan ez duen sufrikarioaz jardungo gara, guztien sufrikarioari behin betirako amaiera emateko. Berririo inoiz gerta ez dadin.

Motibazio politikoa izan duten euskal presoek gurasoak, neba-arrebak, seme-alabak, aitona-amonak, lagunak, ahaideak gara. Beraz, preso horiekin lotura afektiboak eta familia-loturak ditugu. Lotura horiei ez diegu uko egin nahi eta ez diegu uko egin behar, bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako dugun eskubidera mugatzen baitira.

Sakabanatze izenez ezagutzen dugun salbuespeneko espetxe-politikak beste zigor bat erantsi dio espetxe-zigorri eta baita motibazio politikoko euskal presoek espetxeratze prebentiboari ere; hain zuzen ere, familia inguruetik, gizarte inguruetik eta kultura inguruetik urruntzea. Urruntze horrek izaera sistematikoa eta unibertsala du. 2017ko irailaren 30ean motibazio politikoko 310 euskal preso daude espetxean. Horietatik 2 bakarrik daude Euskal Herriko espetxetan; presoek % 69 bere familiaren egoitzatik 600 eta 1100 kilometrotara bitarteko distantziara urrunduak dago; % 22, 400 eta 590 kilometro arteko distantziara urrunduak dago eta % 9 soilik dago 400 kilometro baino distantzia txikiagora.

Egoera honetan presoek senitartekook eta hurbilekook urruntzearen ondorioak jasaten ditugu, espetxean daudenek berek baino neurri handiagoan. Bisitetarako eskubidearen eta familia-bizitzarako eskubidearen hertsapen larriak ezartzen ditu urruntzeak; izan ere, astero tokialdatze luze eta garestiak egin ahal izateko ezinbesteko osasun-baldintzak eta bitarteko ekonomikoak eduki behar baitira. Tokialdatze horiek presio baldintzetan egin behar izaten dira: lan ordutegiak bisitetarako ordutegiekin adosteko zailtasuna egoten da bidaia-ordu asko egin behar direnean; urduritasuna; denbora gabeziaren ondorioz geldialdiak egin eta atsedena hartu ezina; autoa gidatzen ehunka kilometro egiteak ekartzen duen neke pilatua... Baldintza horiek arrisku faktoreak dira, errepidean ibiltzeak berez dituen arriskuak areagotzen dituztenak. Derrigorrean ezarritako tokialdatze horiek trafikoko 318 ezbehar (dokumentatu ditzakegunak) eragin dituzte. Euskal presoek 1100 senitarteko eta hurbilekoek jasan dituzte neurri ezberdineko zauriak, kasu batzuetan oso larriak, eta horietatik 16 pertsonak bizia galdu dute.

Urruntzeak honako ondorio hauek eragiten ditu: lesio fisiko eta psikikoak, sufrikario emozionala, galera ekonomikoak eta giza eskubideen funtsezko murrizketa, hala nola, Europako Zuzenbideak aldarrikatzen duen familia-bizitzarako eskubidearen kaltetzea eta segurtasun fisikorako eskubidearen kaltetzea, ekidin daitezkeen arriskuak ezartzen zaizkigunean. Urruntzeak biktimak eragin ditu eta eragiten jarraitzen du: giza eskubideen urraketen biktimak; hildakoak.

Konturatzen gara eztabaidan dagoela honako galdera hau: sakabanatzearen biktimak giza eskubideen urraketen biktima al dira? Eztabaida politikoa da, lurralde honetan gertatzen den bortxaren inguruko kontakizunari buruzkoa. Baina, aldi berea badu alderdi tekniko bat ere, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideari dagokiona.

Horregatik, gure argudioak azaldu nahi ditugu: sakabanatzearen ondorioz gertatutako hildakoak zergatik hartuko ditugu segurtasun fisikorako eskubidearen urraketa-aren biktimatzat, eta bere kasuan, bizitzarako eskubidearen urraketa-aren biktimatzat? Ez dugu minaren sailkapenik edo alderaketarik egin nahi, hori etikaren eta gizatasunaren aldetik onartezina izango litzatekeelako. Baina, aitortu gabeko sufrikario bati eta, une honetan oraindik aktibo egonik, sufrikario eta kalte konponezinak eragiten ari den egoera bati heldu nahi diogu. Beste gatazka-leku batzuetan sufrikarioaren berdintasun morala deitu izan den horren atzetik gabiltza. Helburu bakarrarekin: inoiz ez dadila berriro errepikatu.

## 1. Presoek eta haien senitartekook eta adiskideok eskubide bat gauzaten dugu

---

Espetxeetarako lekualdatzeak ez dira plazer-bidaiak, ez dira apeta bat, ez dira aisialdia eta ez dira lanerako motibazioz eginak. Astero 2200 kilometrora bitarteko bidaia egitea, errepidean 24 ordu baino gehiago emanaz, bisita-eskubidea betetzeko bide bakarra da. Gure kasuan eta espetxean dagoen edozein pertsonaren kasuan, bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea gauzatzeko bide bakarra dira bisitak. ***“Eskubide hori Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan jasotzen da: Pertsona orok du bere bizitza pribatu eta familiarra, bere etxebizitza eta bere korrespondentzia errespetatuak izateko eskubidea. Autoritate publikoak eskubide honetan soil-soilik legeak aurreikusten dituen kasuetan esku hartu ahal izango du, beharrezko neurri gisa, gizarte demokratiko batean nahitaezkoa izatean segurtasun nazionala, segurtasun publikoa, herrialdearen ongizate ekonomikoa eta ordena defendatzeko, delituak prebenitzeko, osasuna zein morala babesteko, edo hirugarrenen eskubide zein askatasunak babesteko”***.

Espetxeen eremuan horrek esan nahi du presoek kokapena eta patua ezin

dela erabat gelditu Administrazioaren esanetara, ahaide presoak bisitatzeko familiak duen aukera funtsezko elementua delako familia-bizitzarako, Estatuaren betebeharren irismena definitzeko ardura duen Europako Giza Eskubideen Auzitegiak esan duen moduan. Sentzu berean, Saez de Valcarcel Magistratuak dio 884/2015 Apelazio-Helegitean boto partikularrean eta besteetan.

Aipatu artikuluan ezarritako mugen arabera, eskubide horretan esku-hartzea ezin daiteke zuritu sakabanatze politikaren testuinguruan, "beharrezkotasuna" aldarrikatuz. Preso dagoen pertsona eskubideen jabe den subjektua da eta oinarritzko eskubideak baliatu behar ditu. Eskubide horietako bat da bere ingurune sozialarekin eta familia-ingurunearekin komunikaturik egoteko duen eskubidea. Espainiako legeak presoaren berezikeria eta birgizarteratzea (Konstituzioaren 25.2 artikulua eta 1/1979 Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 1. artikulua; ELOO) xedatzen ditu, pertsona presoak birgizarteratze-ko igurikapena zapuztuko lukeen deserrotzea ekidinez. Horrek lotura du senitartekoekin, hurbilekoekin, abokatuekin eta beste profesionalekin komunikaturik egoteko (ELOOren 51. artikulua) eskubidearen gauzatzearekin.

Izan ere, Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 12.1 artikuluan xedatzen duenez, "***espetxeen kokapena izendatuko diren lurraldeen barnean finkatuko du Espetxe Administrazioak. Nolanahi ere, lurralde bakoitzak espetxe beharrei erantzuteko eta zigortuen deserrotzea saihesteko behar beste espetxe izan dezan ahalegina egiten da***". Hau da, Espetxe Administrazioaren premien (geografikoak, espetxe jakin batzuen gain-populazioa, espetxearen egokitzapena espetxeratuaren espetxe-gradura, ordenaren defentsa, arau-hausteen prebentzioa...) alderako argudiorik ezean, eskubide bakarra aipa liteke: pertsona presoak deserrotzerik ez jasateko duen eskubidea.

## 2. Urruntzearen politikak eskubide horren gauzatzea galbideratzen du

Legeak agintzen duena ezagunak diren motibo eta interes politikoengatik galbideratzen da. Segurtasun neurriek eskatu gabe, lege-hauste baten kontrako zigorra izan gabe... presoek kolektibo konkretu bat modu sistematikoa eta unibertsean urruntzeak agertzen du neurri hertsagarri bat dela, Espainiako Gobernuak hainbatetan adierazi duen moduan.

Aurrez definitu dugun bizitzarako eskubidea baliatzeko baldintzak ezartzen ditu urruntzeak; baldintza horiek oso gogorrak dira motibazio politikoko euskal presoek familiako ingurune eta ingurune afektibo guztiarentzat eta haren ondoren ezagunenak, erraz kontrasta daitezkeenak, honako hauek dira: higadura fisiko eta psikiko garrantzitsu bat, kalte eta gaixotasun moduan agertzen dena, pertsona ukituek jadanik jasaten dituztenak areagotzen dituenak; ezin konta ahala trafikoa ezbeharren kausa den arrisku maila altua: egoera hori bizi duten senitartekoen segurtasun fisikorako eta bizitzarako eskubidearen urratzea. Kausa-efektu lotura ezartzen da; lotura horren bidez, estatu politikaren definizioak berak bukaera horretara eramaten du. Familia bizitzaren eskubidea gauzatzeak zuzenki eramaten

du beste eskubide horiek urratzera. Ez gara sartuko beste gai hau aztertzeraz: bukaera hori lortu nahi zena (dolozkoa) ote den ala zeharkako ondorena, ondoren kolateral edo nahi gabekoa ote den. Gertatzen dena da, praktikak esaten digun moduan, jazo egiten dela. Baina, oraindik ere, Espainiako Gobernuak behin eta berriro agertu du egungo espetze politikari indarrean eusteko borondatea, eta horrela erakutsi du ez duela batere borondaterik haren ondorio gogorrek eta, are, haren heriotza-ondorenak ezabatzeko.

Ezinbestekoa da eskubideak zein baldintzetan gauzatzen diren aztertzea, azterketa horretatik inferi baitaiteke eskubidearen urraketa bera ere. Vienako Aldarrikapenak eta Ekintza Programak estatuen betebeharrak hau seinatzen zuen: **“Pertsona bakoitzak giza eskubideak eta oinarrizko askatasun unibertsalak baliatu ahal izateko baldintzak sortzea”**. Programa horrek dei bat egiten zuen esanez **“estatuek giza eskubideen bortxaketa guztiak, haien kausak eta eskubide haiek gauzatzea eragozten duten oztopoak desagerrarazi behar dituztela”**.

Beraz, eskubide batzuen gauzatzea praktikan jartzen diren baldintzen mendean dago. Sakabanatzearen edo urruntzearen politikak aurpegi bikoitza aurkezten du. Alde batetik, presoek eta haien senitartekoen familia-bizitzarako edo bizitza pribaturako duten eskubidea kaltetzen du. Beste aldetik, baldintza perbertso horietan eskubidea gauzatzera behartuz, senitartekoen segurantza fisikorako eta bizitzarako eskubidea urratzeko zirkunstantzia egokiak sortzen ditu. Areago oraindik, esan daiteke baldintza anker, iraingarri eta zital batzuk ezartzen dituela senitartekoen eta presoek beren eskubidea gauzatu ahal izateko. Zirkunstantzia horiek trafiko ezbeharren kausa zuzena dira; hainbat pertsona zaurituen segurtasun fisikorako eskubidearen urratzea edo hildako 16 pertsonaren bizitzarako eskubidearen urratzea eragin dute.

Hain justu ere, egokiago deritzogu “trafiko ezbehar” deitzea, “istripu” deitzea baino, istripuak duen “akzidente” konnotazioa desagiteko; ustekabekoaren edo ekidin ezinaren konnotazioa kentzeko, ezbehar horiek aurreikus baitaitezke; politika baten ondorio zuzenak dira, ezarritako baldintza batzuen ondoriok eta, beraz, ekidin daitezkeenak.

### 3. Estatuaren Erabakia, eskusio bidezko urraketa

Delituaren egile zuzenik eta ezagutu daitezkeenik ez egotea oztopo bat da, lege-urraketa horiek egin izana inori ezin zaiolako egotzi. Alabaina, garbi dago, egiletzatik harago, politika horri indarrean eusteko erabakia Estatuaren erabakia dela. Inork ez du zalantzan jartzen hori horrela denik.

Badira beste delitu batzuk ere, zeintzuetan ezin den detektatu zein den urraketaren egilea; ezinezkoa da egiten duena bereiztea, baina ez dago zalantzarik eragina izan dela eta biktimak sortu dituela. Adibide nabarmenenak politika ekonomiko jakin bat-

zuek eragindako eskubide sozialen, ekonomikoen edo kulturalen urraketak dira, politika horiek ez baitituzte bermatzen bizi-maila duin baterako eskubidea, lanerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea edo osasunerako eskubidea. Inork ez du zalantzan jartzen kasu horietan egoerak biktimak sortzen dituela.

Estatu-politikek eskubide zibilak edo politikoak ere urratzen dituzte. Bortxaketa horiek eskusio-bortxaketak deitzen dira eta talde sozial jakin batzuk esplizituki baztertuak direnean edo sexuaren, erlijioaren, arrazaren, nazionalitatearen, adinaren, klase sozialaren, maila ekonomikoaren... eraginez eskubide jakin batzuk kentzen zaizkienean gertatzen dira. Ez dute estatuko funtzionario baten jarduketa zuzenik aurre-suposatzen. Estatuaren egitura-erabakiak dira, biktima zuzen jakinak eta bereizgarriak sortzen dituztenak.

Kolektibo jakin bat modu sistematikoan kentzen zaizkie beste kolektibo edo banako batzuei urratzen ez zaizkien eskubide batzuk. Kategoria honetan kokatu ahal izango lirateke motibazio politikoko euskal presoek senitartekook jasaten ditugun eskubide-urraketak. Segurtasun fisikorako, familia-bizitzarako, bizitzarako eskubideetatik kanpora gelditzen gara, eta ez dago lege urraketa horren egile konkreturik eta ezagutu daitekeenik, hari lege-urraketa egotzi ahal izateko. Egiaz, inork ez du dekretuz agintzen gu eskubiderik gabe uztea. Teorian eskubide horiek izaten jarraitzen dugu. Praktika da alderantzizkoa erakusten duena.

#### 4. Ez-egitearen bidezko delitu komisioa

Zuzenbide penalean badira ez-egitearen bidez egiten diren delituak. Espainiako Zigor Kodearen 11. artikulua xedatzen duenez, ***“Emaiza sortzean dautzan delituak ez-egiteagatik gauzatutzat joko dira, soilik emaitza saiheste eza emaitza sortzea bestekoa bada, egilearen eginbehar juridiko berezi bat haustean, Legearen testuak duen esanahiaren arabera. Ondoren horretarako, ez-egitea egitearekin parekatuko da hurrengo kasuetan: a) Legez edo hitzarmenez jarduteko betebeharrak zehatza dagoenean. b) Ez-egileak arrisku egoera sortu duenean, zuzenbideak babestutako ondatsunarentzat, aurretiko egite edo ez-egite baten bidez”***

Zuzenbide penalaren eta giza eskubideen arteko paralelismo bat eginez, ondorio honetara heldu beharko litzateke: urruntzearen ondorenak ez ekiditean eta, are gehiago, haren ondorioen irismena ezagutu arren, haiek ekiditeari behin eta berriro uko egitean, ondorio horiek sustatzen dira, tamalgarrienak izanik ere. Kasu horretan zuzenbideak babesten duen ondatsuna segurtasun fisikoa eta/edo bizitza da; aurretiko ekintza, berriz, urruntzearen ezartzea eta/edo urruntzeari eustea. Horrek sortzen duen arriskuak ondoren konkretuak, aurreikus daitezkeenak eta ebaluagarriak ditu. Ikusten dugu, baita ere, egiten denaren aitzikoa egiteko legezko betebeharrak ere badela.

Azken finean, urruntze politikaren aplikazioak lesioak sorrarazten ditu, baita lesio larri eta hilgarriak ere. Horrelakorik ez luke gertatu behar, legezko betebeharrak badagoelako presoari eta haren senitartekoei bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidea bermatzeko.

## 5. Bermeak, ez errepikatzeko

Esan dugun moduan, legezko betebeharrak bat da presoek eta senitartekoek beren erroei eusteko duten eskubidea gauzatzeko baldintzak ezartzea. Baina, betebeharrak morala ere bada; sakabanatzeari amaiera emateko galdegiten duten hiritarren eskakizun iraunkorretatik eta gero eta zabalagoak eta intsistenteagoak diren erakundeen ebazpenetatik eratorritako eskaera da.

Intimitaterako, bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea kontuan hartzeari Auzitegi Konstituzionalak emandako ezezkoaren aurrean Xiol Magistratuak emandako boto partikularra ekartzea bidezkoa da. Magistratuak pentsatzen du ordua dela Auzitegi Konstituzionala "errealitate sozialera" egokitu dadin eta berrius dezan balizko harreman familiarak ez aztertzeke defendatzen duen tesia. ***"Familiako intimitaterako eskubidearen edukitzat [...] familia bateko kideen arteko bizikidetzeta eta kontaktua onartzearen aurrean jurisprudentzia konstituzionalak agertu duen uzurtasuna bir-kontsideratu egin behar da, argudiozko oinarri sendorik ez baitu eta hartatik paradoxa batzuk eratorri baitira"***.

Bidezkoa da, baita ere, aipatu helegiteetan Sáez de Valcarcel magistratuak emandako boto partikularra:

***"Askatasuna kentzeari erantzen zaion atsekabea da urruntzea, itxialdiak berak baino gehiago urruntzen baitu familiaratik eta gizartetik. Ikerketa batzuen arabera, intentsitate bereziz eragozten du urruntasunak espetxeratuaren eta haren senitarteko eta lagunaren arteko harremana; giltzapetua egoteari berezko zaizkion bakardadea eta bakartzea handitzen ditu"***

***"Helegitea jarri duena urruntzea eta haren familiaratik aldentzea arau batean aurreikusia ez dagoen erabaki bat da eta legearen aginduekin kontraesanean dago espresuki; espetxean zigortuak dauden kudeaketaz arduratzen den administrazioako agintariak honetara behartzen dituzte legearen aginduek: espetxeratuaren deserrotzea ekiditera, haien lotura sozialak sustatzera, haien familia-harremani eutsi eta haiek hobetzera eta, horretarako, etxetik hurbil dagoen edo familiararen egoitzatik arazoizko distantzia batera dagoen espetxe batean zigorra betetzera"***

Interpretazio-lerro honek politika hori aldatu eta egokitu beharra azpimarratzen du, errealitatearen printzipioan oinarrituta; urratutako eskubideen gauzatea indartu nahi da. Ez da nahikoa egindako kalteak ordaintzearekin, etorkizunekoak aurreikusi ere egin behar dira. Beste urraketa batzuk ekiditeko, gizatasuneko eta erreparazioko irizpideak behar dira, baina baita prebentziokoak ere; hain zuzen ere, prebentzioko irizpideek eskatzen dute amai dadila politika hau, Estatuaren nazioarteko arduraren oinarriko printzipioak bermatuz.

## **6. Sakabanaturiko presoen senitartekoak biktima kontsideratzea**

---

Aurrez esan dugun guztiarengatik, lesio ez hain larriak eta lesio oso larriak jasan dituzten dozenaka senitartekok eta sakabanatzearen 16 hildako biktimek motibazio politikoko eskubide-urraketaren biktima-aitorpena izan behar dute, beste biktimen baldintza berberetan.

Motibazio politikoko bortxaren testuinguruan Euskadiko Komunitate Autonomoan, 1978 eta 1999 urteen artean izandako eskubideen urraketen biktimen aitorpenerako eta erreparaziorako Uztailaren 28ko 2016/12 Legearen irakurketa zabal batek aukera eman behar luke biktima horiek aitordpena eta erreparazioa jaso ditzaten. Esklusio bidezko eskubide-urraketaren irizpidea eta ez-egitearen bidez oinarritzko eskubidearen lesioa eragitearen irizpidea dira horretarako gakoak.

Hasieran esaten genuena azpimarratu nahi dugu: ez dugu mina sailkatzea edo alderatzea bilatzen. Baina, aitordpenik izan ez duen sufrikarioari heldu nahi diogu; sufrikarioa behin betirako amaitzea nahi dugu eta gertatu dena berriro inoiz gerta ez dadin bilatzen dugu.

Euskal Herria 2017/10/25